

# Aretxagazeta

## ETA GAINERA...

### Ze barri?

ASTEKO GAIA

**San Juan bezperako ospakizunak /08**

OSPAKIZUNA

**Eskoriatzako Aste Zapatista /09**

LEINTZ GATZAGA

**Hauteskunde emaitzei gainbegiratua /10**

## SAN JUAN BEZPERA

**'IGEZ ERE SAN JUAN, SAN JUAN ZAN ETA,  
AURTEN ERE SAN JUAN BAUTISTA...'**



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 19**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 20**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarteak .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**

Arrasate .....	943 79 14 39
----------------	--------------

**LARRIALDIK**

SOS Deiak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 53 47 20
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdiak .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN:**  
**AREANTZA**  
Domekan 11:30ean.

**MENDIOLA**  
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

**GALARTZA**  
Domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**SAN JUAN BEZPERA**  
Ekainaren 23an San Juan bezpera ospatuko dugu. Kultura Sailak antolatuta 18:30ean buruhandiak aterako dira, eta 19:00etan dantza ikuskizuna eskainiko dute Loramendi Dantza Taldeko haurrek. 21:00etan dantzaldia egongo da Trikizio taldearekin eta 22:30ean San Juan sua. Horren ostean, Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute.

**ZAINDUZ ZENTROKO IKASTAROA**

Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak ikastaroak antolatu ditu udarako: tonifikazio arnastua, tai-gim posturala (bizkarreko gimnasia), hasiberriendako eta gazteendako fitness programak, funkya, tai-chia, eta sabel eta areto dantzak. Ekainaren 28an hasi eta uztailearen 30 arte izango dira ikastaroak. Izena emateko azken eguna: ekainak 24.

**ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA**

Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Ekainaren 29a baino lehen eraman behar dira kartelak udaltxera edo kultura etxera. Saria 300 euro da, eta uztailearen 7an emango diote irabazleari.


**LORAMENDIREN AGENDA**

**TXALAPARTA IKASTAROA UZTAILERAKO**  
Txalaparta ikastaroa antolatu du Loramendi EEK datorren hilerako. Uztaileko bost egunetan emango dituzte eskolak inguruko auzoetara joanda; 19:00etan izango dira. Izena emateko Loramendi EEko lokaletik pasatu behar dira interesatuak eta hamar euro ordaindu; ikasle eta langabeek, osterak, sei euro.

**ORAIN DELA 9URTE ARETXABALETAN**

**Holandako Controls enpresa erosi zuen Coprecik**

Holandako Nijmegen hirian zegoen Controls enpresa erosi zuen 1995eko ekainean Coprecik. Ikuzgailu eta ontzi-garbigailuendako presostatoak, hau da, ura neurtzen duten piezak egiten zituen enpresa horrek. 30 holandarrek egiten zuten lan bertan, eta Angel Mateo aretxabaletarra izan zen zuzendaria.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Pipertu”*

Piparmindu.  
— Ziero pupertuta jartzen da Realak galtzen dauenian.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**“BIBLIOPORRAK 2004”**  
Udal Liburutegia

Aurten ere *Biblioporrak* irakurketa gida atera berri dugu Udal Liburutegian. Bertan, oportretan irakurtzeko moduko liburu sorta bat aukeratu dugu, adinka sailkatuta. Gida hori Debagoieneko liburutegiek elkarlanean ateratzen dugu. Gidan agertzen diren liburuak 2003an eta 2004an argitaratuak dira guztiak. Gida hori herriko ikastetxetan banatu dugu, ikasleek opor garaian Udal Liburutegian zer irakurria badagoela ikus dezaten. Ikastetxean jaso ez duen edonork liburutegian bertan jasotzeko aukera izango du.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

EKAINAREN 7tik AURRERA  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Goienkaria**  
astehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**

**Zorion agurrak, SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



**IRIARTE**

Umeen denda  
Helduen lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETAKA

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi 6 • 943 77 17 19  
Basabe 2 • 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina

**URKULU**

FERRETERIA • BRIKOLAJEA  
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETAKA  
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33  
urkulu@cadena88.com



## ATREBENTZIAEZPADA/ Etxebizitza sozialak zozketatuko biher dittuzte herrixen. Ze pentsetan jatzu?



**PAULA PORCEL**  
Langillie

Ondo, etxebizitzie oso karu dau eta datorren laguntza dana ondo hartue dala uste dot: diru laguntzak, promozioñuek... Jente gaztiek eta ez hain gaztiek laguntzak biher dittu.



**ANA TERESA BORREGO**  
Langillie

Oso ondo, askoz gehixau egon biherko lirake. Gaztiek zela erosiko dittue ba 40 milloiko etxebizitzak? Lana be eskax daukie, eta etxien geratu biher gurasuekin nire semie moduen.



**MARIA MANCEBO**  
Langillie

Ondo, gehixau biher diela uste dot, eta ez bakarrik gaztiendako. Batzuk arazo gehixau eukiko dittue, baiñe danok biher dittugu etxebizitza merkiauek; izen be, oso karu daz orokorrien.



**DABID AGIRRE**  
Langillie

Zozketie egittie ondo pentsetan jat, baiñe Aretxabaletako kasuen ondare historikue dan etxie dauen lekuen egin biher dittue. Hori ez daue kontuen hartu, eta ez jat ondo pentsetan.



**ANGEL SAGARRIBAI**  
Langillie

Gehixuau biher diela. Gaztiaz gain seme-alabak dittuzten familixak be laguntzak biher dittue. Madrazori esan biherko dutzou lan gehixuau egin deiela etxebizitzen asuntuen.



**FERMIN BENITEZ**  
Langillie

Ondo baiñe ia zelan egitten dauien zozketie. Gaztiek lelengo etxie erosteko bidie dala uste dot, hortaz, babes-tuteko eta prezio merkiauek daukien gehixau egin biherko leukie.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK MENDI IBILALDIAREN ANTOLATZAILEAK** Gero eta zailagoa da borondatez lan egingo duen jendea aurkitzea, eta mendi ibilaldi bat antolatzea ez da egun batetik bestera egiten. Ardurak, burukominak, ezustekoak... Hala ere bi urtean behin egiteko konpromisoa hartu zuen Murruxio MEk, eta horretan jarraitzen du. Zorionak, guztiei, aurtengoa ere arrakasta handiz egin dute-eta. / M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Hauteskunde emaitzak

Europako Parlamenturako hauteskundeak izan ziren domekan. Herriko datuei gainbegiratu.

ASTEAN BEHIN /05

#### San Juan bezpera

San Juan bezpera ospatuko dugu datorren eguaztean. Aspaldiko ohitura eguneratuko dute.

KIROLAK /06

#### Mendizaleen zaindaria

Mendizaleen zaindariaren eguna pasatu zen hilaren 15ean. Hori ospatuko dute Zaraia MTko kideek.

### ASTEKODATUA

# 2.953

#### ARETXABALETARREK EZ ZUTEN BOTORIK EMAN

Domekan egin ziren hauteskundeetan 5.256 aretxabaletarrek zuten botoa emateko eskubidea. Horietatik 2.303 hurreratu ziren hauteskunde mahaietara, eta 2.953k ez agertzea erabaki zuen.

### BESTEKEESANA

“Ideia orokorretan espezialista naiz ni. Hala ere, orokorretik konkretura pasatzea eguneroko zeregina

da. Bilera asko izaten ditut, jendearen ideiak eta proiektuak entzuten ditut, eta erabakiak hartzea egokitzen zait gero.

Argi dago herri aurreratua izateko azpiegiturretan dirua inbertitu behar dela.

Enpresa ekimen askotan lagundu nahi izan dut beti. Nik, ordea, zerbitzuarekin, turismoarekin edo ostalaritzarekin zerikusia edo lotura duen proiekturen baten parte hartu gurako nuke.

A-1 Gatzaga azpitik pasatuko da. Marinen tunela egingo dute, eta han sartu eta Araban irtengo gara, beraz, ez dugu A-1 autobidea Gatzagan ikusiko.

**KOLDO AZKOITIA**  
'Asteleheneko Goienkaria'/04-06-14

### HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Ai, Europa gairroa!*

Egunotan asko hitz egin da Europako Parlamenturako bozketaz eta, batez ere, izan zen partaidetza eskasaren inguruan. Duela bost urte, bozketak berberean, aretxabaletarren partaidetza %72koa izan zen. Joan den domekan, osterera, %44koa. %28 gutxiago!!! 1999ko bozketaz alderatuz 1.548 aretxabaletar gehiago geratu ziren etxean botorik eman gabe. Eta normalean botoa eman izan duten aretxabaletarrek dira horiek. Harritzekoa, baina egia.

Zer dela eta horren partaidetza baxua? Ez zaigu interesatzen Europaren eraikuntza prozesua? Gure botoak Europako handitasunean baliorik ez duela uste ote dugu? Hori bada gertatu dena, horrela uste dutenak ez dabilta batere ongi.

Egia da herri txikia garena eta Brusela eta Estrasburgo urrun xamar gelditzen direna, baina Europako Parlamentuan erabakitzen denak gure txoko honetan ere eraginik badauka.

Beraz, bertan ordezkari izateak badu bere garrantzia, beti ere gaiak gertutik jarraitu ahal ditzaketelako eta beste herrialdeetako ordezkari batzuekin batera presio taldea osatu dezaketelako, Estaturik gabeko nazionalitateen ikuspuntuak plazaratu eta berauen interesak defendatzeko.

Etxean gelditu diren 1.548 aretxabaletar horietatik ia 1.100ek alderdi abertzaleei eman zieten botoa duela bost urte. Gauzak horrela, aukera ederra galdu dugu Euskal Herriak

Europaren pisua sendotzeko. Abstentzioa gero eta handiagoa den neurrian herrialde txikiok mobilizazio maila mantendu behar dugu, hor baitaukagu garaipenerako benetako aukera. Guri bost axola beste herrialde batzuetan inor joaten ez bada botoa ematera. Guk jokoan dagoenaren kontzientzia mantendu behar dugu eta aukera hauetaz baliatzen jakin. Lastima tren hau pasatzen utzi dugula.

**“Etxean gelditu diren 1.548 aretxabaletar horietatik ia 1.100ek alderdi abertzaleei eman zieten botoa duela bost urte”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





M. J. Aretxaga

## Anaia bi berbagai

Azken astiotan kirol kontuek izen ditudugu, eta oinguen be horretxeikin hasiko naz. Izen be, domekako mendi martxie edarto egon zan. Paisaje edarraz gozatu geuen eta giro politte sortu zan ibilbidien. Hurrengo egunien agujetak euki nittuen, baiñe egindekuek merezi izen euen. Eskerrik asko, Murruxiko!

Gaur bi anaia aittetu biher ditudu, bixek be zeozer egin dauielako, noski. **Igotz Urzelai**k Eskoriatzako San Pedro jaixen kartel iragarle lehiaketie irabazi dau. Mailla haundixe egon dala entzun dot gaiñera. Zorionak ba! Neuri asko gustau jat kartelori. Ia Aretxabaletako Andramaxetako lehiaketara be aurkezten dan, zenbat eta gehixau, hobeto.

**Andoni Urzelai** anaie be gogora ekarri biherrien nau. Izen be, egunotan bigarren liburue argitaratu dau. *Zirkulua* izena dauken nobela beltza ei da, eta Erein argitaletxiek kaleratu dutzo. Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dau, gaiñera, Donostian. Hala eta be dagueeneko salgai dau dendetan. Errealizadorie da lanbidez bera, baiñe idaztie be gustuko dau eta txarto egitten ez dauen seiñale. Lelengo liburue Haginkadaka izen zan, eta orduen Irun Hiria Literatur Lehiaketa irabazi euen.

## HAUTESKUNDEAK/ EAJk lortu zituen boto gehien eta bigarren geratu zen ilegalizatutako HZ %56ko abstentzioa izan zuten hauteskundeetan, EAJ nagusi herrian

MIRARI ALTUBE

Debagoieneko herri guztietan bezala gurean ere abstentzioa izan zen protagonista (%56). Botoei dagokienez, EAJk jaso zituen gehien (649), eta ostean HZ geratu zen (541). Aralarrek, ostera, nabarmen egin zuen behera orain hiru hilabete izandakoekin alderatuta.


Abstentzioa izan da berbagai pasa diren hauteskundeetan, eta Aretxabaletan ere hura izan da protagonista. Izan ere, botoa ematera ez joatea erabaki zutenak gehiago izan ziren Kurtzebarri eskolara hurreratu zirenak baino.

### EAJ NAGUSI ETA ONDOREN HZ

Aretxabaletan 5.256 herritarrek zuen botoa ematera joateko eskubidea. Horietatik 2.303 joan ziren eta 2.953k ez agertzea erabaki zuten; hau da, %56k.

Botoa eman zutenen artean gehiengoak EAJ aukeratu zuen; hala, 649 boto jaso zituen. 100 boto gutxiagorekin HZ izan zen bigarren indarra, 541ekin, hain zuzen. PSE-EE geratu zen hirugarren, 392 botorekin. Haren ostean, PP 150ekin, Aralar 144rekin eta IU-Ezker Batua 70ekin.

Debagoieneko eta Euskal Herriko gainerako herrietan gertatutakoaren antzekoa izan zen



2.303 herritarrek bakarrik erabaki zuten botoa ematera hurreratzea domekan.

gurean ere. EAJ, HZ eta EA pozik azaldu dira izan dituzten emaitzekin; izan ere, EAJ Debagoieneko herri gehienetan nagusitu da, Antzuolan izan ezik, HZ biga-

rren indarra izan da jaso dituen boto kopuruari dagokionez, eta EAJ orain hiru hilabete izan ziren hauteskundeetan baino emaitza hobek izan ditu.

## LABUR

### Argia dantza taldearen ikuskizuna uztailaren 3an

Argia dantza taldeak *Pas de Basque* ikuskizuna eskainiko du uztailaren 3an Aretxabaletako kirol etxean. Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen taldean 40 dantzarik eta hamar musikaririk hartzen dute parte, eta 2002ko irailean aurkeztu zuten ikuskizuna, arrakasta handiz aurkeztu ere. Euskal dantza tradizionalak erakutsiko dituzte, baina erabat gaurkotuta: desafioa, patuaren dantzak, Nafarroako hainbat dantza, zinta-dantza eta Aratusteetako dantzak.

### Langile berriak izango ditu Loramendi EEK

Loramendi Euskara Elkarteak langile berriak izango ditu irailtik aurrera. Larraitz Arandok utzi egingo du dinamizatzaile lana eta bere lekua Leire Lardizabal arrasatearrak beteko du. Gazteen gaineko proiektua aurrera eramateko, bestalde, Larraitz Inurategi aretxabaletarra hartu dute. Miriam Txintxurretak egin duen proiektua irailean jarriko du abian Larraitzek, ikasurte berriarekin batera.



### Giro polita Kurtzebarri eskolaren egunean

Joan zen zapatuan egin zuten Kurtzebarri eskolaren eguna. Irakasle, ikasle eta guraso ugari batu ziren, eta giro ezin hobea sortu zuten. Aipatzekoa da bazkal ostean egin zuten euskal jantzien desfilea; garai bateko trajeak ezagutzeko benetan aukera polita. Patxi Perezen dantza emanaldiarekin bukatu zuten eguna. /M.A.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**


Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Jou Diaz



Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26



**SAN JUAN BEZPERA/** Dantzak, sua eta tantaia izango dira protagonista eguazten gauean

# San Juan bezperako usadioak berritzeko gaua eguaztenean

M.A.

San Juan bezperako ohiturak berritzeko garaia heldu da. Hala, eguaztenean, hilak 23, dantzak, sua eta tantaia izango dira protagonista Aretxabaletan, orain urte batzuk bezalaxe. Gaua girotzeko, bestalde, dantzaldia izango dugu Trikitio taldearen eskutik, plazan.

Udako solstizioa edo San Juan bezperako gaua dugu ekainaren 23an. Urteko gaurik motzena magia beteta dator aurtan ere.

## SUA HERRIKO PLAZAN

Igez ere San Juan, San Juan zan eta, aurtan ere San Juan Bautista. Hala dio kantuak, eta hala abestuko du Aretxabaletako abesbatzak herriko plazan. Urteko egunik luzeena edo gaurik motzena lehen eguzkiari eskaintzen zitzaion eta orain, San Juan Bataiatzaileari.

Jai handia zen garai baten aretxabaletarrendako; soroan lanean ibilita ere, San Juanen mar-txa entzundakoan, lan tresnak utzi eta ospatzera joaten ziren. Baserri guztietan ez bada, gehi-entsuenetan pizten zuten sua, eta herrian bertan ere hiru edo lau su egoten ziren. Orain, bakar- ra egiten da, herriko plazan. Sua- rekin batera San Juani gorazarre egingo diote herritarrek, txistu doinu- en laguntzarekin.

## OSTUTAKO TANTAIA

Sua itzali ostean tantaiaren ordua da. Datorren urtean Santa Ageda batzen ibiliko diren mutilak tantai bila joango dira arratsaldean. Gauean, zuritu eta gero, plaza erdi-erdian jasotzen saiatuko dira. Aspaldiko ohitura da, baina urte batzuetan galduta egon zen. 1944an berreskuratu zuten eta geroztik urtero jaso dute. Frontoi osteko zelaian eta parro- kiaz aurrean ere jarri izan zuten urte batzuetan, baina orain, plaza du egonlekua. Ohiturak dio luzea, zuzena eta ostutakoa izan behar duela tantaiak. Puntan aza, kipula, letxuga eta berak- tza jarri izan dizkiote, eta orain, Ikurrina ere bai. Tantaia jaso



San Juan dantza egingo dute Loramendi Dantza Taldeko neskek, sua piztu aurretik.

*Suarekin batera  
San Juani  
gorazarre egingo  
diote herritarrek  
txistu doinuekin*

ostean mokadutxoa egiten dute; ardoa, ogia eta gazta hartzen dute bai mutilek, bai herritarrek.

## GURUTZEA, IRAK ETA LORE SORTA

San Juan egunean, hilaren 24an, lore sorta eramaten zuten lehen bedeinkatza. Urte osoan base- rrian egoten zen sorta San Jua- netan erre egiten zuten berria egi- teko. Ateburuetan arantza zuriz egindako gurutzea jartzea ere

*Ohiturak dio luzea,  
zuzena eta  
ostutakoa izan  
behar duela  
tantaiak*

ohitura zuten; ekaitzak uxatzen zituen gurutzeak. Ira edo garoa, bestalde, oraindik ere botatzen dute atarte aurrean etxe batzue- tan. Pobrezia uxatzeko ei da.

Ohiturak, usadioak eta erri- toak berritzeko garaia da, baina gaurkotuta. Hala, buruhandiak eta dantza ikuskizuna izango di- tuzte herritarrek eguazteneko arratsalde partean. Gauean, oste- ra, dantzaldia, sua eta tantaia.

## LABUR

### Etxebizitza sozialak zozketatuko ditu Javier Madrazo sailburuak ekainaren 23an

Kaminerokua baserria dagoen lekuan, Tubos lantegi alboan, 20 etxebizitza sozial egingo ditu Eusko Jaurlaritzak. Eraikitze lanak oraindik ez dituzte hasi, lehenengo hiriztatze lanak egin behar dituztelako. Hala ere, eguaztenean, ekainak 23, etxebizitzok zoz- ketatuko dituzte udaletxeko ganbaran, 12:00etan. Eusko Jaurla- ritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madra- zok hartuko du parte ekitaldian. 20tik 19 egingo dituzte zotz gura- so bakarrek familien, ezinduen eta 35 urtez azpiko gazteen artean. Behin-behineko zerrendan 23 lagun izenak zeuden.

### 1934an jaiotakoek, 70 urte egingo dituztenek, bazkaria egingo dute ekainaren 26an

Kinto bazkaria egingo dute ekainaren 26an, zapatua, Taberna Berrin, 1934an jaiotako aretxabaletarrek, hau da, aurtan 70 urte beteko dituztenek. 10 urtean behin egiten dute bazkaria; hortaz, aukera polita izango dute berriz elkartu eta kontu zaharrak gogora ekar- tzeko. Izena Taberna Berri jatetxean bertan eman behar dute lehen- bailehen interesatuek, hamar euro utzita. Ea hamar urtean behin egin beharrean sarriago egiteko aitzakia den aurtengo bazkaria.

## TXUTXU-MUTXUA



### Pastoral Barrutiko kideak Bizkai aldera

Leintz Pastoral Barrutiko kideek kurtso bukaerako irteera egin zuten joan zen zapatuan. Elorrioko parrokia ikusi zuten lehenengo, gero Ziortzara joan ziren, eta horren ondoren Mar- kinako Arretxinagako Mikel Deunaren ermitara. Bada, harri- tuta geratu ziren Eskoriatzatik eta Aretxabaletatik joandako 36 kideak; izan ere, hiru harritarren azpian dago Mikel Deu- na. Giro ona izan zuten, eta oso pozik itzuli ziren. /M.A.

**LAUSORO OSTATUA**

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**MAITE**  
ILE APAINDEGIA  
Sarasate 1 behea  
Tel. 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**J.J. IRURE**  
ITURBENTZUA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187



MENDIA

## Ia 400 lagunek hartu zuen parte Murrukixok egindako mendi ibilaldian

Eguraldi ederra izan zuten mendizaleek Aretxabaletako mendi bazterrak ezagutzeko

M.A.

Bailarako mendizaleak izan ziren nagusi domekako mendi ibilaldian, baina Gasteiztik, Durangotik eta beste hainbat tokietatik ere etorri ziren. Guztira 393 lagun. Eguraldi ederra izan zuten, Alabita aldean lainoa egon arren, eta giro ezin hobean egin zuten ibilaldia.

Ezusteke eta arazo barik egin zuten joan zen domekan Murrukixok antolatutako III. Mendi Martxa. Ia 400 lagunek hartu zuen parte, gehienak bailarakoak, eta antolatzaileak oso pozik daude.



MARIA AGIRRE

Txalapartarien doinu hotsekin atsedenditxoa hartu zuten mendizale batzuek.

### LEHENENGOA 10:00ETAN

Ibilbide polita izan zela, oso ondo adierazita zegoela nondik joan, eta paraje eta ibilbide berriak ezagutzeko aukera izan zutela aipatu zieten antolatzaileei parte hartu zuten mendizale askok. Eguraldi ederra izan zuten, gainera, nahiz eta Alabita inguruan

lainoa nagusitu eta ezin izan zuten gozatu bertatik ikusten den paisaia dotoreaz.

Lehenengoa 10:00ak pasatxorako plazan zegoen. Gainerakoak lasaiago ibili ziren, eta Durangotik etorritako mendizale batzuk

galdu egin ziren Alabita aldean. Hala ere, antolatzaileek aurkitu eta besteekin batera bukatu ahal izan zuten ibilaldia. Hanketan arazoak izan zituen besteren bat ere egon zen, baina gainerakoan, arazo barik.

MENDIA

## Mendizaleen zaindariaren eguna ospatuko du asteburuan Zاراia MTk

San Bernardo Menthon zaindariaren eguna Mendiolaburuan ospatuko dute bihar, zapatua

M.A.

Bihar, zapatua, San Bernardo Menthon mendizaleen zaindariaren eguna ospatuko dute Zاراia Mendizale Taldeko kideek. Kurtzebarri inguruan buelta txiki bat eman, eta Mendiolaburuan bazkalduko dute. Eguraldiak laguntzen badie behintzat giro ona izango da nagusi.

Ospakizun berezia dute Zاراia MTko kideek bihar. Zaindariaren eguna ospatzeko elkartuko dira, eta Kurtzebarri inguruan mendi ibilalditxoa egin ostean bazkaria eta jokoak izango dituzte Esko-

riatzako Mendiola auzo gainean dagoen Mendiolaburuan.

### BAZKARIA ETA JOKOAK

San Bernardo Menthon da mendizaleen zaindaria. Ekainaren 15ean pasatu zen eguna, baina Zاراia MTko kideek bihar, zapatua, ospatuko dute. Aurreko urteetan 50en bat lagun elkartu izan dira, gehienak aretxabaletarrak baina arrasatear batzuk ere bai, eta aurten ere antzera ibiliko direla uste du Martin Garai mendizale taldeko presidentek. Edozelan ere, argi utzi gura du azken orduan agertzen den edozeini egingo diotela lekua.

Kurtzebarri mendi inguruan egingo dute bueltatxoa lehenengo, eta bazkaltzeko Mendiolaburura hurreratuko dira. Bazkal ostea girotzeko jokoak izango dituzte: kartak, ping-ponga, dardoak... Eguraldiak laguntzen badie behintzat, giro ezin hobea sortuko dute elkartuko diren mendizaleek.

Uztaileko lehen asteburuan bestalde, hilaren 3an eta 4an hain zuzen, Pirinioetara egingo dute irteera. Taldeko kideez gain gura duen edozein joan ahal izango da, hortaz, mendizale taldeak Nafarroa kalean duen egoitzara hurreira dadila izena ematera.

PILOTA

## Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatu dute Errasti anaiek hilaren 26an

Elgetako Oskarbi taldeko pilotarien aurka jokatu zituzten finalurreko partidu biak Errasti anaiek, eta arazo barik sailkatu dira finalerako. Senior mailako Debarroko Pilota Txapelketaren finala ekainaren 26an, zapatua, jokatu dute Eskoriatzan, eta seguru asko Bergarako pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Irabaziz gero laugarren aldiz izendatuko dituzte txapeldun.

SQUASHA

## Ekainaren 30era, eguaztena, atzeratu dute Aretxabaletako Squash Txapelketako finala

Gaur jokatzekoa bazen ere Squash Txapelketako finala atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Hala, datorren ekainaren 30ean, eguaztena, jokatu dituzte bai hirugarren eta laugarren postuak izendatzeko partiduak, bai finala. Garikoitz Ibarzabal izango da finala jokatu duen jokalaria bat, eta bestea Sergio Glez. de Galdeano eta Alberto Ferreirok jokatu duten partiduen irabazlea izango da.

## FOTOKIROLA



### Zarauzko triatloiarren ostean Lekeitiokoa

Triatloiz triatloi dabil Aretxabaletan bizi den Asier Barrainkua. Joan zen zapatuan Zarauzkoan hartu zuen parte. 5 ordu eta 37 minutu behar izan zituen 2,5 kilometro igerian, 82 kilometro bizikletan eta 20 kilometro korrikari egiteko. Istripu txiki batzuk ere izan zituen, baina gustura bukatu zuen. Bihar, zapatua, Lekeition egingo den triatloian izango da, eta hilaren 26an Donostiara joango da. Sasoian dagoen seinale. / M.A.

# Esko Sport

## Zure konfidantzako denda

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

# Lasai

## Mirian Manteca masajista

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

# Martin

erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA



ERRETRATUZHARRA

# Gazteen Nazioko Liga jokatzera



A tzo oraindik futbolean zebiltzala ematen du, baina dagoeneko urtetxo batzuk pasatu dira: 25, hain zuzen. 1979ko ekainaren 16an ateratako argazkia da, Legazpiko Bikuña futbol zelaian. Denboraldian egindako lan txukunari esker Gazteen Nazioko Liga jokatzeko aukera izan zuen gazte talde honek. Athletic, Bartzelona, Real Madril, Zaragoza, Valladolid, Sevilla eta Real Sociedad taldeak izan ziren parte hartu zutenetako batzuk, guztira 18 bat, eta tartean UDA kirol elkarteko lehen mailako gazteak. Donostiako Easo taldearen aurka jokatu zuten finala 2-1 galdu, eta esku-hutsik bueltatu behar izan zuten Aretxabaletara. Hala ere, pozik itzultzeko moduko gertaera izan zen; izan ere, gazteen mailako taldea ez da sekula hain urruti heldu.

Pello Untzueta bedoñarra zuen entrenatzaile taldeak. Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara, zutik: Mikel Urreta, Juanjo Diaz de Gereñu, Juan Manuel Sanchez, Eduardo Altube, Roberto Etxeandia

eta Julen Ezeiza. Bigarren ilaran, makurtuta: Inaxio Garro, Joxean Diaz de Gereñu, Fede Aranbarri, Fernando Sanz eta Karmelo Uribarren.

Taldean bost aretxabaletar, hiru eskoriatzar eta bost arrasatear daude. Horietako batzuk, gainera, lehen eta

bigarren mailako taldeetan ibili ziren gero: Juanjo Diaz de Gereñuk Murtzia taldearekin lehen mailan jokatu zuen, baita Alavesekin bigarren mailan ere. Roberto Etxeandiak ere Alavesen jokatu zuen, eta Mikel Urretak Eibar taldean. Pello Untzueta entre-

natzaileak, ostera, Idigoras eta Muruzabalekin batera UDako talde historikoan kapitain lanak egin zituen.

Argazkia: Angel Zubiria  
Informazioa: Inaxio Garro

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Errekaren ibilbidean auzo berria

Errekaren ibilbidea aldatzea eta uholderik egon ez zedin zabalagoa egitea erabaki zuten agintariek orain urtetxo batzuk. Bihurgunea kendu eta orain Loramendi kaletik zuzenean dator Errekabarren kalerantz. Erreka zegoen tokian, ostera, auzo berria egin dute —Belorrieta—, baita errepide zabala ere, herriaren hegoalderantz zuzenean joateko automobilean.



≈ 1988

Errekaren ezkerreko aldean agertzen diren etxe txikiak bota, errekarren ibilbidea zuzendu eta auzo berria egin zuten.




2004

Etxe ugari egin zituzten Belorrieta auzoan. Errepide berriarekin zuzenean daude lotuta Andramari eta Errekabarren kaleak Loramendirekin.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxes: 943 71 22 68

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA**

*Aretxagazeta*



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 18a / 170. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Herriko plazan San Juan sua piztu, eta haren inguruan dantza egingo dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aurten ere piztuko dute sua Eskoriatzan San Juan bezperan. Sua pizteko ohiturarekin jarraituko dute. Aurretik, baina, erreko diren gaiak batzera joango dira Tortolis ludotekako lagunak. Egunaren amaieran, suaren bueltan dantza egiteko aukera egongo da.

San Juan bezpera ospatuko da Eskoriatzan ekainaren 23an, eguaztena. Axtrokik antolatu du egitaraua, eta jai giroan murgiltzeko bezalakoa da.

### EGUNEKO EGITARAUA

Arratsaldez hasiko dituzte ekin-tzak. Hasteko, 17:00etan Eskoriatzako gaztetxoei dei egiten diete antolatzaileek. Tortolis ludotekako haurrak herriko plazan bilduko dira, eta segidan, txorimalo, egur eta lore bila joatea erabaki dute.

Horren ondoren, 18:30ean, umeentzat bonba japoniarrak egongo dira herriko plazan.

Txistularien kalejirarekin jarraituko dute San Juan bezperako ospakizunak. Iluntzean, 22:30ean, sua piztuko dute Esko-



ARTXIBOA

Arratsaldean hasiko dira gauean piztuko duten sua egiteko materiala biltzen.

riatzako plazan. Aurten, herriko txistulari taldea arduratuko da lan horretaz.

Su horretan erreko dira, besteak beste, ludotekako lagunek

eramandako txorimaloa eta iaz San Juanetan jasotako lore sorta, ohiturari jarraituz.

Jarraian, txistularien doinuak entzungo dira eta gura dute-

nek suaren inguruan dantza egiteko aukera izango dute. Antolatutako ekimenekin amaitzeko, herriko gazteek zuhaitza igoko dute herriko plazan, 23:30ean.

*Hasteko, Tortolis ludotekako lagunak txorimalo eta lore bila joango dira*

*Txistulariek piztuko dute aurten San Juan sua ekainaren 23an, eguaztena*

*Eguna amaitzeko, herriko gazteek zuhaitza igoko dute herriko plazan*



### San Antonio ermita inauguratu zuten domekan

Domekan inauguratu zuten Gellaoko San Antonio ermita. Duela 12 urte erre egin zuten, eta azkenean, hainbat dirulaguntza lortu ondoren, irailan hasi ziren berreskuratze lanak egiten. Inaugurazio egunean, meza esan eta luntxa izan zuten gerturatutakoek. Argazkian ikusten denez, jende askok kanpotik entzun behar izan zuen meza, elizate hartako baseliza oso txikia baita. Eguraldiak ere lagundu zuen jendea bertaraino erakartzen.

### LABUR

#### Azken Guraso Eskolan elikadura arazoei buruz

Eguaztenean amaitu zen aurtengo Guraso Eskola. Elikadura arazoei buruz hitz egin zuten bertan eta informazio gehiago jaso nahi zuten hainbat lagunak hartu zuten parte mintzaldian. Hizlari lanetan Acabe taldekoak egon ziren. Hamar urtetik aurrerako seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako saioa izan zen. Adin horretatik aurrera, oso garrantzitsua da elikadura zaintzea, eta gaur egun elikadurarekin lotutako geroz eta arazo gehiago dago.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**PLATER TIROKETA LEHIAKETA**

Venta Frian plater tiroketa lehiaketa egingo da bihar, zapatua, Aldaiepe ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta. 10:00etan hasiko da lehiaketa, eta 12:00ak arte interesatuek izena emateko aukera izango dute. Bi baldintza bete behar dira: lehena, eskoriatzarra izatea edo Aldaiepeko kide izatea; eta bigarrena, arma baimena indarrean edukitzea. 10 euro ordaindu behar dute elkarteko bazkideek; bazkide ez direnek, 12 euro.

# Txiapasi buruz gehiago ikasteko aukera herrian

Z.V.M.


**Aste Zapatistaren helburua Txiapasko egoera gordinaren eta daramaten borrokaren berri ematea izan da; eta neurri handi batean lortu dutela adierazi dute antolatzaileek. Astea amaitzeko, Aldarrikapen Jaia egingo dute Eskoriatzan bihar, zapatua.**

Amaitzear dago Aste Zapatista. Izan ere, astelehenean hasi zen eta etzi, ekainak 20, emango zaio amaiera. Mexikoko indigenei eta beraien kulturari buruz gehiago ikasteko aukera egon da herrian.

**ASTEAK EMANDAKOAK**

Astelehenean hasi ziren ekimenak. Duina koordinadora eta bere lanari buruzko hitzaldiak eman zion hasiera asteari. Martitzenean, berriz, diapositiba emanaldia egin zuten. Bertako bizimoduari buruzko argazkiak erakutsi eta informazioa eman zieten kultura etxera gerturatutakoei. Eguenean, Txiapas eta Mugimendu Zapatistari buruzko mintzaldia egin zuten.

Bestalde, bihar, Aldarrikapenerako Jaia egingo dute Eskoriatzan. Herri txikiteoak emango dio hasiera egunari, 13:30ean; ordubetara, herri bazkaria, Txiapasko jaki tipikoeekin; bazkalondoren ikuskizuna egongo da: malabarismoa, musika...; 19:30ean, *Mundu hobearen alde* lelopean kalejira egingo dute, eta eguna amaitzeko, Akulu eta Enboskada



Txiapasko irudi interesgarriak ikusi zituzten martitzenean kultura etxean.

taldeek kontzertua eskainiko dute Eskoriatzako gaztetxean.

**TXIAPASI GAINBEGIRATUA**

Txiapas Mexikoko herrialde txiroenatarikoa da. Hala ere, lehengaitan aberatsa da lurraldea. Euren arazoan iturburuak dira lehen munduko multinazional

asko eta Mexikoko estatua bera. Txiapasko biztanleek ezin dituzte zuhaitzak moztu, dirudunek eskubide guztia dute. Biztanleen erdiak ez dute urik edateko, eta bi herenek ezta drainatze sistemarik ere. Aste honekin, gizarte harekiko sentsibilizazioa lortu gura izan dute antolatzaileek.

**LABUR**

**Isuna, HZren kartelak Ederlanen jartzeagatik**

Aurreko egubakoitzean, bi eskoriatzar Herritarren Zerrendaren pankarta jartze- ra joan ziren Ederlan parera. Bide-seinale batean jarri zuten. Hala, ertzainak agertu, eta legez kontrakoa zela esan omen zieten. Bi eskoriatzarrek erantzun zuten ertzainei kartelak botorik eskatzen ez zenez legala zela. Kartela eurek biek kenduko zutela esan arren, ertzainek apurtu egin omen zuten pankarta. 300 euroko isuna jarri diote bakoitzari, bide-seinale nahasmena egotzita.

**San Pedrotako kartela eta leloa aukeratu dituzte**

Aretxabaletako Igotz Urtzelaik irabazi du aurtengo San Pedrotako kartel lehiaketa. Bere lanagatik, 300 euroko saria jaso du aretxabaletarrak.

Bestalde, jaietako esaldia ere aukeratu dute. *Kuadrilen giruek igerri daixela herri hontan jaixetan gazela* izango da aurtengo leloa. Jon Ander Errasti, Iñigo Urrutia, Haritz Segura eta Aitzol Alabak sortua da, eta 12 talderen artean aukeratu dute. Beste esaldi batzuk pegatinak egiteko aukeratu dituzte; *Ondo pasauaz ligetako asmua eskoriatzar danan lelua!*, esaterako. Talde irabazleari afaria egokitu zaito San Pedrotan.

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81.78 / 670 997 274

Markoztatzea



**TOKI ALAI TABERNA**

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

**Ze barri?**

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

**943 79 86 21**




- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3  
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



Aranburuzabala 22, behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20



# Abstentzioa handia izan zen, eta EAJ alderdiak eskuratu zituen boto gehien


Z.V.M.

Europako Hauteskundeak egin ziren domekan, eta abstentzioa nagusi izan da toki askotan, baita Gatzagan ere. Lehen indarra EAJ izan da; bigarrena HZ. Bien arteko aldea hiru botokoa izan da; kontuan hartzekoa da, hala ere, bigarren indarra legez kanpo dagoela.

Domekan egin ziren geurean Europako Hauteskundeak. Herri gehienetan normaltasunez igaro zen eguna, eta Leintz Gatzagan ere horrela izan zen.

Guztira 213 herritar daude erroldan; baina ez zuten guztiek bozkatu. Izan ere, %57,28k eman zuten botoa. Gatzagan, Herri Eskolan egokitu zuten hauteskunde mahaia; goizetik itxi arte 122 lagun igaro ziren bertatik.

Herrian boto gehien jaso zituen alderdia EAJ izan zen, 52 botorekin. Herrian bigarren indarra izan zen legez kanpo utzitako Herritarren Zerrenda, 49 botorekin. Bestalde, EAK eta Aralarrek bosna boto lortu zituzten herrian. Ezker Batuak hiru eta PPK eta PSOEk boto bana.



Ez zen jende askorik gerturatu Herri Eskolan egokitutako hauteskunde mahaira.

## LAU BOTO KALAMUAREN ALDE

Bestalde, aipatzekoa da Gatzagan Kalamuaren legalizazio eta normalizazioaren aldeko alder-

diak lau boto jaso zituela iragan domekan. Oraingo legediaren aldaketa aldarrikatzen duen alderdia da, eta badirudi herrian

batek baino gehiagok babesten duen ideia dela. Alderdi hori Estatuan zortzigarren indar politikoa izan da hauteskundeotan.

*Abstentzio handia izan zen domekan Gatzagan: %42,72, hain zuzen ere*

*Bigarren indarra Herritarren Zerrenda izan zen, botoen %40,16 eskuratuta*

*Kalamuaren legalizazio eta normalizazioaren aldeko alderdiak lau boto izan zituen*

## San Juan bezperan afaria egingo dute gatzagarrek

Z.V.M.

Eguaztenean San Juan bezpera ospatuko dute herrian. Hala, afaria antolatu dute. Herriko plazan elkartuko dira, eta janaria parrillan erre ondoren, San Juan sua piztuko dute. Horrela, urteko gau motzenetik egun luzeenera igaroko dira Gatzagako bizilagunak.


Datorren eguaztenean San Juan bezpera ospatuko da herri askotan, eta Gatzagan ere bilduko dira herritarrek ospakizunerako. Animatzon diren guztiek batera afalduko dute, esaterako.

Hasteko, arratsaldeko zortziak aldera herriko plazan bilduko dira, eta antolatzaileek, sardinak erreko dituzte parrillan. Arrainaz gainera, saiheskia ere jarriko dute erretzen. Gura duten guztiek har dezakete parte afarian.

Sabela bete ondoren, eta lagunarteko giroan, txondorrei su eman eta San Migel plazan argitasuna nagusituko da. Hala, San Juanetan ohitura den legez, sua piztuko dute eta haren inguruan bildutako gatzagarrek ongietorria egingo diote San Juan egunari, urteko gau motzenetik egun luzeenera igaroko dira dantza eta saltoka.



Iaz ere egin zuten afaria San Migel plazan, eta ederto igaro zuten.



**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Eik. Koop.

Gastañadui auzoa 42  
20540 Eskonatz  
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**AZKOAGA**

**ESTANKOA**

943 71 48 77

Zure  
Zerbitzura



# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarraillak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



SAIO BEREZIA


## Eskuak elkarri

ANTZEZLANAREN EMANALDIA

Martitzenean, ekainaren 22an  
20:30ean

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**





Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada  
**giro!**



*Matikua jatetxea*

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden  
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGVNEKO MENYAK  
OTARTEKOAK ETA  
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064  
ARETXABALETA

**COMPOSTELA**  
Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70

**H A I Z E A**



Kafetegia eta  
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

**HIRUSTA JATETXEA**

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

**Mirrentxu**



Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67



Zatoz gure musikaz goatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA

**ARLUTZ**

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta**  
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 94 15

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA

LAGUNAK  
DASTALEKU



Tel. 943714063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Aretz**  
taberna



ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA